



BARREN

TOKIKOM

# Begiak Estatu Batuetan



# JOSTAILU ERAKUSKETA

**KULTUR ETXEKO SOTOAN**

## **JOSTAILUEN AUKERAKETA: ZER HARTU KONTUAN?**

AZAROAREN 24an, **EGUENA**, 17:00etatik 19:30era  
AZAROAREN 25ean, **BARIXAKUA**, 17:00etatik 19:00etara  
AZAROAREN 26an, **ZAPATUA**, 11:30etik 13:30era

60  
JOSTAILU  
BAINO GEHIAGO

AZALPEN  
PERTSONALIZATUAK

JOLAS TXOKOA  
GIDA DIDAKTIKOA



AZAROAREN 25ean, 21:00etatik 00:00etara

## **PINTXO-JOLAS DASTAKETA**

**nerabe eta gazte  
(adinez edota arimaz) guztientzat**

**GAZTETXEAN doan**

**pintxo jana + karta eta mahai  
jolasen saio dinamizatua**

**ANIMATU HADI!!!**



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



elgoibar

Gipuzkoako  
Puru Aldundia

Basque Government  
Basque Government



Elipentzia Forde  
de Gipuzkoa

Basque Government  
Basque Government



EURO INKLARITZA  
CORFINARI VASCO

Basque Government  
Basque Government

Basque Government  
Basque Government

Basque Government  
Basque Government



GARAZI AYESTA



## “Helburua ez al da udako nostalgiak kreditu txartelari astindua emanez baretzea?”

**A**zaroak esku-hutsik harrapatu nau, Nora. Nork, eta azaroak. Ikasturte hasieraren eta Gabonen arteko zubirik hotz eta gordinenean, hasten direnean egunak laburtzen eta iluntzen. Hasten denean hotza hezurretaraino sartzen eta kaleak gartzaina usainez apaintzen direnean... Udazkenak bete-betea hartu gaitu bere kolore, zapore eta usainekin. Eta aurtengoan, ni esku-hutsik harrapatu nau, prestatu gabe, ez esperoan. Ez dakit sekula jabetu zaren, baina nik aurten demaseko aurkikuntza egin dut. Udazkenari beste zapore bat ere hartu diot aurten... diruarena. Edo hobeto esanda, diru-faltarena. Antza, iluntasunak eta hotzak deprimitu edo egiten gaitu, eta komertzio handiek, dendek eta multinazionalak ondo dakite hori... Hara non agertu diren *Black Friday*, *colour days*-ak eta, nire azken aurkikuntza izan dena, *singles day* (San Valentín egunari aurka egiteko sortu ei zen, Txinan). Izen-abizenak ez dira berdi-

nak, baina helburua funtsean ez al da, bada, denetan gure depresio, tristezia eta udako nostalgiak kreditu txartelari astindua emanez baretzea? Iraileko beherapenak ondo atzean utzi ditugu jada, eta Gabonak... Gabonak urrun daude oraindik. Gastatu dezagun azaroan ere dirua. Eta badakizu zer den txarrena? Multinazionalak sekula galtzen aterako ez direnez eta gizartearen antidepresibo gisa betetzen duten rola ondo barneratuta dutenez gero, beherapen izugarri horiek sekula ez direla prezioz hain behean egoten. Pare bat aste lehenago igo ohi dituzte produktuen prezioak, eta gero bai, noski, azaroan denak behera... Eta nik, sinetsi nahi ez arren, ba tira, zergatik ez... Gomendio bat: azaroari geratzen zaizkion egunak osasunez gozatzeko, edo hurrengo urtera begira besterik ez bada... Urria amaitzen denean, itzali ordenagailuak, blokeatu sakelako telefonoko Internet eta irten kalera... Gaztaina dozena ere merke dago-eta.



NORA HADI



## “Monigote hutsak gara gure erreakzioak ondo estudiantuta dituzten komertzioen aurrean”

**A**upa, Garazi! Aurtengo azaroa nik ere ez dut begi onez hartu. Lanik gabe harrapatu nau, eta lanik gabe... ezin dirua nola-hala xahutu. Arrazoirik ez zaizu falta; monigote hutsak gara gure erreakzioak ondo estudiantuta dituzten komertzio handi hauen aurrean, baina benetan hobeto sentiarazten al gara kreditu txartelari astindua emanda?

Egunak okupatuta izaten saiatzen naizen arren, ez dira horren azkar kontsumitzen, eta denbora libre gehiegi daukat buruan ditudan pentsamenduei bira larregi emateko. Akordetzen naiz karrerako lehenengo urtean psikologia klasean landu genuen atalaz: 50 urte dituzuneko krisia. Bat-batean konturatzen zara gaztetatik zenituen helburuetatik zein distantzitarra gelditu zaren. 50 urterekin ez omen zara zaharra oraindik, baina ezta gaztea ere jada, eta azken ideia horrekin, noski... nola hasi orduan bizitzatza aldrebesten? Bada gustuko dugun beste esaldi bat: galdetu zure buruari, ea gaurko ekintzek bihar egon nahi duzun tokira hurbiltzen zai-

tuzten. Eta, orain bai, Garazi, 24 urte dituzuneko krisian nago.

Askok ez diote kasurik egingo esandakoari, baina ziur naiz gutxi batzuk identifikatuta sentituko zaretela. Ez al da ba antzekoa 24 urterekin benetan egin nahi dituzun gauzei garrantzia ez ematea? Ez al naiz martxa honetan 50 urterekin egoera berdinean egongo? Colinari entzundako "Azalberitze" prozesuaz hitz egin nahi dizuet. Kontzientzia aldarrikatu behar omen da, eta pentsatzen jarri... nolako pertsona, nolako profesionala izan nahi duzun.

Begirada aldatu. Hasi beste gauza batzuei garrantzia ematen. Jarri erronkak. Pozten ez gaituztenak, *fuera*. Definitu gehiago nolako pertsona izan nahi duzun. 50 urte dituztenei, nire lanean zaharra 94 urteko aiton-amonei esaten diegu. Beste mende erdi duzue saiatzeko, ekibokatzeko edo asmatzeko. 24 dituzuen, ireki begiak; izan osoagoak. Eta zuri, Garazi, gaztainak jateak "gazte-adina" izatea dakar? Pentsa dezagun horrela. Hurrengo dozena nere kontu! Ez gaitezen geratu gazte izateko diru faltan.



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHUen

## Udaberriko lorak

zonan. Legelari ofizioz; matematikari afizioz. Horra! Letrak eta numeruak! Gaur hainbeste txepelkeria entzuten danian: "Ni letretakua non, ni numeruetakua non". Bah! Ipoñak! Baiña, esaten niharduana... Fermat hau euskaldun arrastokua ez eze, euskeraz oso ondo moldatzen ei zonan! Indurain, Muguruza...! Horrek neguko lorak dittun, neska! Zientzian historixako erraldoi euskaldun bat jakanau! Gaiñera, interesantia egitten daban pasarte bat ere bajaukan Fermat honek. Fermaten Azken

*"Fermat hau euskaldun  
arrastokua ez eze, euskeraz  
ondo moldatzen ei zonan!  
Indurain, Muguruza...!  
Neguko lorak dittun horrek"*

– Garbiñe Muguruza, Garbiñe Muguruza... Ointxe aspertu non zihero. Euskeraz ere ez zakin-eta! Euskalduna dala, euskalduna dala... bah! Hor jakanau Pierre de Fermat. Eta? Iñork kasorik ere egitten eze jion ba?

– Eta zein den, ba, Fermat hori?

– Ez al dakin? XVII. gizaldiko jakintsu bat zonan. Descartesekin batera garaiko matematikaririk haundixena, seguruenera. Eta Matematikan historixako pertsonaje haundixetako bat dudarik pe. Frantsesa zala? Okzitanian jaixo eta bizi izan

Teorema. Diophanto matematiko grieguan aritmetika liburu baten baztartxo batian idatzitza laga jonan Fermatek. Pitagorasena goguan al den? Triangulo zuzen baten bi alde txikixen koadrauak batuta, alde nagusixan koadrauakin bat etortzian kontu haura? 3, 4 eta 5 numeruak betetzen jone hori, esaterako. Ba, koadrauak biharrian, potentzia haundi-xauak hartu ezker, ez daguala erregela beteko daban 3, 4 eta 5 bezelako numero arrunten hirukoterik. Hor, motzian esanda. Ba, Fermatek, hori hala zala eta demostrazio ikusgarrixa topatu zabal, baiña, erakusteko, baztartxo harretan lekurik ez zakala idatzi jonan. 350 urte eta hamaika eginahal pasatu bihar izan jonen, Wiles inglesak, 1995ian, behin betiko proba ezin sofistikatuagua ematia lortu arte. Harrapain!

– Tipon honen txapak-edo atera biharko jixunauz, orduan, euskerian egunerako.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarriko Lehen Argitaratzailea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Anso, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► SEBAS ETXERA, ETA KARAKATERA!

Sebas Etxaniz elgoibartarrak 73 urte dauzka eta Villabonako kartzelan dago preso, Asturiasen. Egungo legediaren arabera, 70 urtetik gorako presoek aske egon beharko lukete. Horregatik, eta giza eskubidea delako, Sebasen aldeko sinadura kanpaina egiten ari da Elgoibarren. Mendizaleok ere Sebas Karakaten nahi dugula aldarrikatzeko, argazki erraldoia aterako dugu bihar, larunbata, Kalegoen plazan, 10:50ean, Karakateko igoera hasi aurretik. Era berean nahi duten mendizale eta korrikalariei dei egiten diegu, Karakateko igoeran Sebasen aldeko elastikoa eraman dezaten.

**Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Javi Dominguez, Arkaitz Bernedo, Nerea Lendinez, Arkaitz Irureta, Iñaki Laskurain, Lide Leibar, Imanol Goñi, Edu Uribe, Iban Murua, Garazi Sampedro, Julen Martinez de Estibariz, Anartz Etxeberria, Aritz Munarriz, Edu Iñiguez de Heredia eta Joanes Goitisol.**

### ► AUZOETAKO BATZARRAK

Joan zen azaroaren 6ko *El Diario Vascon* irakurri nuen Eibarko Udalak auzoetako bizilagunekin bilerak hasiko dituela azaroaren 9tik aurrera, haien ezinegonak, iradokizunak eta erreklamazioak ezagutzeko. Herria zazpi zonaldetan banatu dute, eta zonalde bakoitzean bilera bana egingo dute. Bileretan alkateak, hirigintzako zinegotziak eta beste udal ordezkari batzuk parte hartuko dute. Parte-hartze prozesu horretan bildutako ekarpenen gaineko gogoeta egingo du gero Udalak, ahal den neurrian, herrian egin beharreko lanetan eta udal aurrekontuak prestatzeko orduan kontuan izateko. Beste bilera txanda honekin Udalak aukera eman

nahi die herritarrei euren kexa eta iradokizunak zuzenean egiteko udal ordezkariari.

MAIXA herritarren parte-hartzea sustatzeko erakundearen eskariz hasi ziren bilera hauek egiten 2011. urtean. Hasiera batean Eibarko Udalak errezelo handiz hartu zuen proposamen hau, baina denborak erakutsi digu halako ekimenak onuragarriak direla bi aldeentzat eta herritarren parte-hartzea ere itxurazkoa izaten dela. Nik neuk ere baieztatu dezaket azken hori, neure begiz ikusi nuelako Eibar erdiguneko bizilagunentzat joan zen azaroaren 10ean Eibarko Jubilatuen Etxean egin zen bileran parte hartu nuenean.

Iruditzen zait interesgarria litzatekeela Elgoibarren ere halako zerbait egitea, herritarrek udal ordezkariekin hartu-eman zuzena izan dezaten. Apirilean Ane Beitia alkatearekin eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotziarekin udal txean egin nuen batzarrean ere aurkeztu nuen nire proposamen hau.

**Juan Angel Garcia Calleja**

### ► ESKERRIK ASKO

Lau asteburu sinadurak jasotzen pasatu ondoren, ehunka izan dira Sebas Etxanizen askatasuna eskatu duten elgoibartarrak. Sinadura horiek Elgoibarko Udalaren udalbatzan aurkeztutako den mozioari babesa adierazteko jaso dira, eta eskerrak eman nahi dizkiegu sinatu duten guztiei. Hilaren 24an Udalbatza izango da, eta han mozio hau aurkeztuko da. Uste dugu garrantzitsua izango litzatekeela Udalbatza ere ados agertzea mozioan eskatzen denarekin. Finean: Gizatasun arrazoiak direla eta, 73 urte dituen Sebas Etxaniz Alkorta aske utzi bitartean, jatorrizko hurbileko espetxe batera ekartzea, familia eta lagunengandik ahalik eta hurbilen; eta

akordioa Auzitegi Nazionaleko Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralari igortzea.

Udalbatza hilaren 24, osteguna, arratsaldeko 18:30ean izango da. Denok gaude gonbidatuta.

**Elgoibarko SARE**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datarren eskutitzik argitaratuko.

## Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira elkarretaratzea egingo dute gaur zortzi Kalegoen plazan

Azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da, eta horren harira, Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak elkarretaratzea deitu ditu herritarrak. Azaroaren 25ean izango da kontzentrazioa, 19:30ean, Kalegoen plazan.

Horrez gain, beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko eragileek, emakumeenganako tratu txarren kontrako kontzientzian eragiteko. Ikastetxeetan indarkeria matxistaren prebentziorako tailerrak egingo dituzte, Beldur Barik programaren barruan. 400 bat ikasle hartuko dute parte guztira. Horrez gain, mutilentzat clown desahalduntzaile saioa egingo dute Mekan, eta 31 mutilek hartuko dute parte. Gaztelekuan ere *Beldur Barik* astea antolatu dute azaroaren



18tik 27ra bitartean. Tailerrak, erakusketak, filmak eta hainbat jarduera praktikoko landuko dituzte gazteekin. Liburutegian, bestalde, ipuin ez sexistak kontatuko ditu Maider Galarza ipuin kontalariak, eta Haizeak antolatuta, hitzaldia eskainiko du Loredi Salegik Kultur Etxean. Emakumeen jabeakuntzan aurrerapausoak emateko tailerrak ere egingo dituzte. Azkenik, 14 urtetik gorako emakumeen-

tzako autodefentsa tailerra antolatu dute Olaizaga kirol taldeak eta Kirol Patronatuak azaroaren 26rako. 10:00etatik 12:30era izango da saioa, Elgoibarko kiroldegian. Saioa doan izango da, baina plazak mugatuak dira, beraz, izena ematea eskatu dute. Interesatuak Kiroldegian bertan edo 943 744 415 telefonoan eman behar dute izena. (Egitarau guztia agendan).

### Elikagaien bilketarako boluntarioak behar dira

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du azaroaren 25ean eta 26an, eta Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak bat egin du ekimen horrekin. Txandak antolatuko dituzte, bai ostiralean, eta bai larunbatean, 9:00etatik 21:00etara arteko ordutegi etengabea betetzeko, eta horretarako boluntarioak eskatu dituzte. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean eman behar dute izena, (Kalegoen 6, behea edo 943 741 008 telefonoan).

Elgoibarren jasotzen diren elikagaiak Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzara eramango dira. 2013an 6.565 Kg. elikagai bildu ziren; 2014an 9.980 Kg. eta 2015ean 16.550 Kg. Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak honako hauek osatzen dute: Gurutze Gorria, Sartu, Caritas, Nagusilan, Kalamua Guraso Elkarte, Ikastolako Guraso Kontseilua, Arreiturrekoak Elkarte, Elgoibarko, Pobreziaren Kontrako Plataforma, Stop Desahucios eta Elgoibarko Udala.



### Elgoibarko Izarrako hezitzaileek lehen sorospen ikastaroa egin dute

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiakako eta Udal Zerbitzuetako langileek lehen sorospen ikastaroa egin dute, Udalarekin lankidetzan. Gurutze Gorriko profesionalek eskainitako 40 orduko ikastaroa jaso dute. Haur, nerabe eta gazteen hezkuntzan dihardute lanean eta egunerokoan ezbeharren bat suertatuz gero, egoerari aurre egin ahal izateko oinarrizko jakintzak landu dituzte.

## Biktimak gogoratzeko elkarretaratze isila egin zuten joan zen astean Giza Eskubideen Parkean

**M**emoriaren Eguna izan zen azaroaren 10ean, eta Elgoibarko udalbatzarra osatzen duten alderdietako ordezkariak, eta zenbait herritarrek elkarretaratze isila egin zuten Giza Eskubideen Parkean. Era berean, Elgoibarko alkate Ane Beitiak lora sorta bat laga zuen Giza Eskubideen parkean dagoen Gernikako Arbolaren aurrean biktimak gogoratzeko.



### Sorturen birfundazioko ponentziari ekarpenak egiteko bilera antolatu dute hilaren 26rako

Sorturen birfundazio prozesuaren barruan *Zohardia* ponentzia aurkeztu dute, eta azaroaren 26an ponentzia horri ekarpenak egiteko bilera egingo dute. Kultur Etxean izango da larunbat goizez, eta egun hori izango da ponentziari berari eta Sorturen zuzendaritza berriari buruzko botoak emateko azken eguna. Sorturen birfundazio prozesuan Ezker Abertzalearen proiektu politikoa-ekin bat egin eta Sorturen Kongresu Prozesuan akreditatzen den edonork parte har dezake <http://partehartu.sortu.eus/> helbidean izena emanda. Bertan daude eskuragarri beharrezko materiala eta informazio guztia.

### Herriko merkataritza sustatzeko bono kanpaina jarri du martxan Txankakuak

Kontsumoa bultzatu eta herriko merkataritza sustatzeko bono kanpaina jarri du martxan Txankakua merkatarien elkarteak. 40 euroko bonoa erosita, 50 euroko erosketa egin ahal izango da. Bonoa 25 euroko bi zatitan banatuta egongo da; hortaz, gutxienez 25 euroko erosketa egin behar da. Nahi izanez gero, 50 euroko bi bono elkartzeko aukera ere badago, eta horrela 100 euroko erosketa egin. Mila bono atera dituzte guztira. Interesatuak Rural Kutxan erosi ditzakete bonoak, azaroaren 30era arte.

### Europako ikasle eta irakasleak Mekan



Meka ikastetxean Europako hainbat proiektu dituzte, eta horren baitan Europako hainbat herrialdetako ikasle eta irakasleen bisita jaso dute aste honetan. Proiektu honetan lau herrialdetako ikastetxeek hartzen dute parte: Euskal Herriko CIFP Meka LHIIIk, Kroaziako Koprivnica hiriko Srednja Skola, Sizialiko Don Luigi Sturzo ikastetxea, eta Frantziako Annonay hiriko Ogec Saint Denis. Guztira, 40 ikasle eta irakasle etorri dira Elgoibarrera, eta astebetez egongo dira hemen. Elgoibar eta inguruneak ezagutzeko hainbat irteera egingo dituzte. Mekako arduradunek esker-erak eman dizkiete Elgoibarko Udalari eta alkateari egin dieten harreragatik.

### San Migel jaietako errifak badauka irabazlea

Jesusa Odria izan da San Migel jaie-tako errifaren zozketako irabazlea. Lehe-nengo sariduna ez zen agertu, eta bigarren saridunak jaso du saria. Txaha-laren ordeztu, dirua aukeratu du.





## ▶ MODESTO CID MENDIZALEA

Orain dela 14 urte sartu zen Modesto Cid elgoibartarra Mendi Martxen zirkuitoan, eta urte horietan zehar Euskal Herriko hainbat eta hainbat mendi eta ingurune ezagutu ditu. Eta horrez gain, lagun asko ere egin ditu. Han eta hemen ibiltzen dira Mendi Martxak egiten, eta urteen poderioz nolabaiteko harremana sortu da euren artean. Eta lagun koadrila horrek amaiera berezia eman nahi dio aurtengo denboraldiari. Mendi Martxen zirkuito ofiziala amaitu bada ere, azaroaren 26an Trikuharrien Ibilbidea mendi martxa egingo dute. 8:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta mendi ibilaldiaren ondoren, babajana egingo dute.

- AINHOA ANDONEGI -

# “Lagunartean eta paisaia berriak ezagutuz gozatzen dut mendian”

## ◆ Mendi martxa bat antolatu duzu azaroaren 26rako. Zertan datza?

Mendi Martxen zirkuitoan ibiltzen garen lagun talde bat bildu gara, eta denboraldia amaitzeko Elgoibarren antolatu dugu mendi ibilaldi bat. Ez da zirkuito ofizialeko martxa izango, lagunarteko mendi ibilaldia baizik. 8:30ean batuko gara Kalegoen plazan, eta Trikuharrien Ibilbidea egingo dugu Karakate-Hirukurutzeta artean, baina tarte horretan dauden tontor guztietatik pasatuta. 22 bat kilometro izango dira guztira, 1.100 metroko desnibel positiboarekin. Eguraldi ona badago mokaduxoa egingo dugu Sargoa ten, eta gero babajana elkartearen. Mendi martxa librea da eta nahi duenak hartu dezake parte, baina bazkaritarako 40-50 laguneko muga jarri dugu.

## ◆ Noiztik zabilza mendi martxetan?

Orain dela 14 bat urte hasi ziren ibilbide luzeko mendi martxak antolatzen Euskal Herrian, eta ni neu ere orduan hasi nintzen parte hartzen. Orduan 60-80 la-

gunek hartzen genuen parte, eta gaur egun 800 edo mila lagun biltzen gara, eta batzuetan gehiago. Tolosako 14 Orduak proban, adibidez, hiru mila lagunek ematen dute izena. Jende askok lasterketarako entrenatzeko erabiltzen ditu martxa hauek.

## ◆ Mendi martxak, baina, ez dira lasterketak, ezta?

Ez. Ibilbidea egiteko gehiengo eta gutxiengo denbora zehazten dira, eta gehienez ere, orduko sei kilometroko abiadura joan zaitezke. Zirkuitoko mendi martxak gutxienez 40 kilometro eta 2.000 metroko desnibel positiboa izan behar dute, baina batzuk 55 kilometrotik gorakoak dira, 4.000 metroko desnibelarekin. Martxa zeintzuk hasi eta amaitzen duten kontrolatzen da, baina ez dago irabazlerik. Denboraldi amaieran sari batzuk banatzen dira, baina jendeak ematen ditu botoak eta ez dauka lehiaketarekin zerikusirik.

## ◆ Nola aukeratzen dira bozketa horre-

## tarako hautagaiak?

Zirkuitoko finalista izateko Euskal Herriko zortzi martxa egin behar dira gutxienez, eta zortzi horien artean probintzia bakoitzeko bat egon behar da derrigor. Milaka lagun ibiltzen dira mendi martxetan, baina aurten 79 lagunek lortu dute finalista izatea, eta horietako bat neu naiz. Hogeitabat mendi martxa antolatzen dira urtean, eta badago jendea 18 egiten dituenak. Horrek esan nahi du askotan zatituan mendi martxa bat eta domekan beste bat egiten dutela. Nik 11 egin ditut. Hilean bat, gutxi gorabehera. Horrez gain Hiru Handiak eta Ehunmiliakeko G2 proba ere egin ditut. Hiru Handiak egiten 2002an hasi nintzen, eta ordutik ez dut inoiz huts egin, baina nire helburu bakarra proba amaitzea izaten da, lagunekin disfrutatu eta ondo amaitu.

## ◆ Hamalau urte hauetan, eman al dizute zuri saririk?

Ez. Sari hori jasotzeko meritu handia egin behar da. Sari hori jaso dute esate-



rako 70 urte baino gehiagorekin Ehunmi-  
liak proba egin dutenek edo Hiru Han-  
diak... laz, adibidez, Durangoko gizon  
batek 14 mendi martxa egin zituen 70 ur-  
terekin, eta hari eman zioten. Badaude  
beste bi gizonetako 76 eta 78 urtekoak,  
Hiru Handiak probako edizio guztietan  
parte hartu dutenak. Aurten 23 ordu pasa  
behar izan ditu batak, eta 24:06 besteak,  
baina biek bukatu dute proba. Adin horre-  
tan proba hori amaitzea sekulakoa da.  
Niretzako jende horrek irabazleak baino  
meritu handiagoa dauka.

#### ♦ **Mendia eta lehiaketari buruz zer iritzi daukazu?**

Mendi martxetan ere polemika sortu da gai horrekin. Suposatzen da mendi martxak oinez egiteko direla, baina jende askok korrika egiten ditu. Araudiak dio orduko sei kilometroko abiadura joan zaitzezkeela gehienez, eta erritmo hori ere ez da motela; hauspoari ondo eman behar zaio erritmo horretan joateko. Erritmo horretan, Elgoibarko Mendi Itzulia sei ordu eta erdian bukatu daiteke, baina korrika joaten direnek lau ordutan amaitzen dute. Pentsa, martxa askotan anoa postuak ere jarri gabe egoten dira korrikalariak iristen direnean, eta batzuk haserretu egiten dira. Niri berdin zait jendea mendian korrika ibiltzea, baina martxa baten izena ematen duenak araudia bete behar duela iruditzen zait. Mendian korrika egite horrek ez dut uste luzaroan iraungo duenik. Gorputzari faktura handia pasatzen dio horrek! Mendi martxetan hasi nintzenean Elgoibartik dozena bat ibiltzen ginen, eta gaur egun beteranoetan neu bakarrik nago. Gorputza ez bada zaintzen, lesioak sarri

agertzen dira. Mendian dabilen adineko jendea bere erritmoan ibili dena da, korrika ibitzen direnek gazte hartzen dute erretiloa.

#### ♦ **Nola gozaten duzu zuk mendian?**

Nik lagunartean eta paisaia berriak ezagutuz gozaten dut mendiaz. Korrika eta proba bat irabaztera doana, bakarrik doa. Asko jota beste lagun batekin joango da, baina batak bestearen erritmoa ezin badu jarraitu, bakarrik bukatuko dute, eta niri mendian bakarrik ibiltzea ez zait gustatzen. Lagun giroan ibiltzen naiz gusturen. Hitz egin, paisajea ikusi, leku berriak ezagutu... Taldean gainera, mendian ibiltzea seguruagoa da, makalaldi uneetan batak bestearekin lagundu ahal diolako. Gaurko gazteak topera dabilta, eta gainera, sekulako ekipazioak dituzte. Mendi martxa baten hasieran gu betiko praka motzekin eta txubaskeroarekin joaten gara, eta hango pila batek Killian Jornet dirudite. Baina Killian Jornet bat bakarrik dago. Gero eta gehiagok dituzte entrenatzaileak edota dietistak, bi segundo gehiago edo gutxiago egiteko. Denak erlojuari begira joaten dira. Nik orduari begiratzen diot, poteo ordurako iritsiko naizen edo ez jakiteko. Mendia lagunartean askoz politagoa da. Azken bost urteotan lagun talde bat Ponferradara joaten gara 107 kilometroko martxa bat egitera. Asteburu pasa joaten gara, lagun giroan. Txikiteo pixkat, afaldu eta gero mendira.

#### ♦ **Mendia eta parranda uztartzen dituzu zuk orduan.**

Ahal bada, bai, biak gustatzen zaizkiteta! Askotan Hiru Handiak probak Tri-

nitatekin batera tokatu izan da, eta mendi proba amaitu ostean behin baino gehiagotan etorri izan naiz Danborradara eta gero parrandara. Alderantziz ere egin izan dut noizbait: Danborradan jo, motxila hartu eta Tolosako 14 Orduak martxara joan zuzenean. Eta bukatu nuen martxa, baina gogorra egin zitzaidan. Hobeto moldatzen naiz mendian ibili ondoren parranda egiten, aurretik eginez baino. Nik mendia ez dut lehiaketarekin lotzen. Mendia gozatzeko da, lasai ibiltzeko eta mendi ibilaldiaren ondoren parranda egiteko aukera bada, hobeto!

#### ♦ **Bihar Karakateko Igoera jokatu dute. Izan al duzu sekula parte hartzeko tentaziorik?**

Ez da niretzako moduko proba, baina urte batean egon nintzen parte hartzeko tentatuta. Prestatu nintzen, baina ama hil zitzaigun eta azkenean ez nuen parte hartu. Oso proba esplosiboa da. Garai batean Susok irabazten zuen, eta 33-35 minuturen bueltan egiten zuen proba. Plazatik Karakatera 35 minutuan igotzeko, ondo eman behar zaio gorputzari! Baina gaur egun denbora horretan 35 lagun sartzen dira. Errekorra 27 minuturen bueltan dago, eta seguru aurten ere hobetuko dutela.

#### ♦ **Mendiak harrapatu zaituela esan daiteke?**

Bai, engantxatuta nago. Oso polita da mendian ibiltzea, eta mendi martxei esker Euskal Herri osoa ezagutu dut. Ibilbide eta mapa guztiak gordetzen ditut karpetan, eta gero nire kabuz joan naiteke.

## BIHAR, KARAKATEKO IGOERA

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta Karakateko Igoera jokatu dute bihar. 11:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Karakatera arteko bidea egin beharko dute, norberak aukeratzen duen bidetik. Laz 88 lagunek hartu zuten parte, eta Iñigo Larizek eta Ainhoa Lendinezek irabazi zuten. Hala ere, ez zituzten errekor denborak hobetu. Gizonetako etan Iñigo Larizek dauka errekorra (27:37) eta emakumezkoetan Nahia Quincocesek (34:21).



## Hitzaldia, antzerkia eta 'Women in black' ekimena antolatu ditu Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak, Udalaren babesarekin. Azaroaren 18rako iragarri duten solasaldi batekin hasiko dute programa. Malen Aldalur eta Ana Iruretagoyena *Klito!* aldizkari digitaleko kazetari eta sortzaileak gonbidatu dituzte solasaldira eta indarkeria matxista normalizatuen irakurketarako gakoak landuko dituzte. *Indarkeriaren aurpegiak ikusaraziz* jarri diote izenburua solasaldiari eta indarkeria matxista identifikatzeko tresnak eta hari aurre egiteko mekanismoak aztertuko dituzte taldean. Udaletxeko batzar aretoan izango da solasaldia, 19:00etan hasita, eta antolatzaileek aurreratu dute zaintza zerbitzua izango dela Ludotekan, solasaldira joan nahi duten gurasoentzat.

Azaroaren 20an, berriz, 'Macho-maris' antzezlanaren ekarriko dute San Agustin Kulturgunera. Zipistintzen berdintasunaren aldeko kolektibotik sortutako antzezlanaren da *Macho-Maris*, Markus eta Juanmanoloren show-a. "Ezin gizo-

nagoak diren gizon bik sortutako ikuskizun hau, umorearen bidez, kode matxisten kontra matxinatzen saiatzen ari diren gizonei eskaini nahi zaie; berdintasunaren aldeko lanean esfortzua egiten ari direnei, hain zuzen", diote aurkezpen kartelean. Doan izango da antzerkia, eta antolatzaileek zaintza zerbitzua jarriko dute ludotekan, antzezlanaren ikustera joan nahi dutenentzat.

Azaroaren 25erako *Women in black* ekimena iragarri dute. Estatuan bikotekideek hil dituzten emakumeak ikustarazteko kale-ekintza da *Women in black*, eta aurrez beste herri eta hiri askotan ere egin izan da. 16 urtez gorako herriko emakumeak inplikatu nahi dituzte ekimen honetan eta egun horretan plaza hartzeraz deitu dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak hildako emakume bat irudikatuko du, isilean. 19:00etarako jarri dute ordua. Ekintza honen gaineko argibide eta zehaztasun gehiago nahi duenak Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldearen blogean aurki ditzake: [mendarokotratuon.blogspot.com](http://mendarokotratuon.blogspot.com).

## Mendaroren alde egindako lana eskertuko diote Angel Bazterretxeari abenduaren 4an

Angel Bazterretxea abadeari esker emateko ekitaldian parte hartzeraz deitu du herritar talde batek abenduaren 4rako. Joan zen azaroaren 6an hartu zuen erretiroa Bazterretxeak, 54 urtez Mendaroko abade izan ostean, eta urte horietan guztietan herriaren alde egin duen guztia eskertu nahi diote herritarrek. Talde argazkia atera nahi dute Herriko Enparantzan, eta 13:00etarako jarri dute ordua.

1962an iritsi zen Bazterretxea Mendarora. 26 urte eskas zituen, Saturrango abade-etxea laga eta Garagartzako mojen komentuan kapilau hasi zenean. Elizako ardurez gain, beste ardura asko ere hartu ditu Mendaron Bazterretxeak, baina bereziki herrigintzan egindako lana nabarmendu dute abenduaren 4ko ekimenaren sustatzaileek: herriko gazteekin izan duen hartuamena eta



Mendaro ikastolaren sorreran, Guruzpe elkartearen bueltan eta Mendaro herria sortzeko prozesuan egindako lana aipatu dituzte, besteak beste.

## Trikibertso poteoa antolatu dute Mendaron biharko

Trikibertso poteoa antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak biharko, azaroaren 19rako. 19:30ean hasiko dute tabernaz tabernako poteoa, Gaztetxean. Aitor Salegi, Iñigo Zubiaurre *Beitxi* eta Danel Olano arituko dira bertsotan, eta Idurre Arriola eta Maite Olazabalek lagunduko diete soinu eta panderoarekin. Gavean, 23:30etik aurrera, Parrazta Punk eta Gurera taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean.

## Kontzezio azoka, abenduaren 3an

Abenduaren 3an egingo da aurreten urtero Kontzezio Egunaren bueltan egin ohi den azoka.

## Hasi dituzte Garagartza eta Herriko Enparantza lotzeko igogailua egiteko lanak

**H**asi dituzte Garagartza kalea Herriko Enparantzarekin lotuko duen igogailu publikoa egiteko lanak. Mendaroko udaletxearen atzeko aldean eraikiko dute igogailua, irisgarritasuna hobetzeko. Igogailua egitea erabaki zutenean, erabilera handia izango duen ekipamendua izango zela adierazi zuen Mendaroko alkate Sonia Garciak. "Kontuan izanda Garagartzako kale nagusietan gutxi gorabehera 300 pertsona bizi direla eta han daudela San Agustin kultur gunea eta haur-eskola pentsatzen dugu beharra badagoela eta igogailuak erabilera handia izango duela".

Zubieder eraikuntza enpresa ari da igogailua jartzen, eta 103.840,09 eurokoa (BEZ kanpo) izan da obraren esleipena.



## Azaroaren 26an jokatuko da Alkortako Igoera



Azaroaren 26an jokatuko da aurten Alkortako Igoera. Mendaroko Ezker Abertzaleak antolatzen du lasterketa hau, eta aurtengoa hamaikagarren aldia da. 10:30ean abiatuko dira lasterkariak udaletxe aurretik eta 4,7 kilometroko bidea egin beharko dute Alkorta baserri atariraino iristeko. Iaz Jokin Muñoz mendararra gailendu zen, 22:02ko denborarekin, baina Iñigo Lazkano herrikideak du errekorra (20:24). Lehenengo hiru sailkatuentzat izango dira sariak, baina ohi legez, Alkortara igozen diren guztientzat hamaiketako egongo dela aurreratu dute antolatzaileek.

## Garaiutzera mendi irteera antolatu du Arno Guraso Elkarteak

Domekarako mendi irteera antolatu du Arno Guraso Elkarteak. Garaiutzera (575m., Mendaro) joango dira. Bi ibilbide izango dira aukeran: motza eta luzea. Luzekoak 9:30ean irtengo dira Garagartzako plazatik eta oinez joango dira Lizarperaino handik Garaiutzera joateko. Motzekoak, 10:00etan batuko dira Billale ondoan eta kotxez egingo dute Lizarpera arteko bidea. Mendi ibilaldirako izena eman behar da, eta gaur, ostirala, da izena emateko azken eguna. Horretarako [arnomendiage@gmail.com](mailto:arnomendiage@gmail.com) helbidera idatzi behar da, ibilaldira joango zaretan izen-abizenak, telefono zenbakia eta hurrak zein ikasturtetan ari diren zehaztuta. Lau bat orduko ibilaldia izango da, eta bazkalordurako etxeratuko dira.

## Aldizkako zaintza zerbitzua ere badago Ikastolan

Eguneroko zaintza zerbitzuaz gain, aldizkako erabiltzaileentzako zaintza zerbitzua ere eskaintzen dute Mendaro ikastolan. Haurra egun bakarrean eraman nahi duenak zaintzara arduradunari jakinarazi beharko dio aurrez (beranduez bezperan) eta 5 euro ordaindu beharko ditu, eguneko eta umeko. Zerbitzu hori hilean hiru aldiz baino gehiagotan erabiliz gero, baina, kuota osoa ordaindu beharko da: 50 euro. Arno Guraso Elkarteak kudeatzen du zaintza, eta 7:30etik 9:00ak artekoa da zerbitzua. Arratsaldeko zaintza zerbitzua bertan behera gelditu zen iaz, eskaria ez zelako behar bestekoa. Harremantarako: [arnozaintza@gmail.com](mailto:arnozaintza@gmail.com).



San Frantzisko.



## Kontrakoa gertatu da

**Estatu Batuetako hauteskondeek ez dute inor oharkabeen laga, eta BARREN ere jarri da hara begira. Estatu Batuetan bizi den Mainer Lehr ingeniari elgoibartarraren iritzi eta bizipenak jaso ditugu batetik, eta bestetik, AEBak moduko potentzia ekonomiko bati gertutik jarraitzea dagokion Mikel Artola ekonomilari elgoibartarraren balorazioa. Donald Trumpen agintaldiak zer ekarriko duen aurreratzeko goizegi dela diote biek.**

- AINARA ARGOITIA -

Espero zenaz bestekoa gertatu da Estatu Batuetan. Hala ikusi da kanpotik, eta hala bizi izan dute lan kontuengatik hara joandakoek. Horixe aitortu du Mainer Lehr elgoibartarrak. Lehrrek zortzi urte daramatza Estatu Batuetan, Coloradon. Telekomunikazio ikasketak egin zituen, Portlanden (Colorado) egin zuen doktoretza eta gaur egun Boulderren, Denver hiriburutik ordubetera, ari da lanean, ahots-prozesatze alorreko enpresa batean, biometrika alorrean. Bere inguru gertuan demokrata zaleak ditu Lehrrek "den-denak". "Hala esaten zuten behintzat, demokratei emango zietela botoa", esan du Trumpen aldeko boto isilak emaitza orokorretan izan duen eraginaren jakitun.

Colorado urdina da, demokraten kolore urdinekoa. Hori bai, Hillary Clintonen aldeko gutxi topatu ditu bere bueltan Lehrrek.



New York.

"Bernie Sandersen aldekoak ziren guztiak hemen. Ez zitzairen Clinton batera gustatzen, eta batzuek, Portlandeko lagunek bereziki, Sandersen aldeko botoa ere eskatu zuten primarioetan, Facebook-eta". Inguru horrekin eta komunikabide gehienak Trumpen kontrakoak zirela ikusita aitortu du pentsaezina ere bazitzaiola Trumpen garaipena, eta ezustean harrapatu zuela berriak. "Komunikabideek duten indarrarekin ulertzeko ere zaila da horren gaizki laga duten gizonak irabaztea. Lantokian txantxetan eta dena ibili ziren lagunak hauteskunde egunaren bezperan. Inork ez zuen espero hemen". Bera bizi den herria, Boulder, "oso pro-

## “Hemen

### hautagaien arteko

eztabaidak izan

direnean jendea

etxean gelditu

da telebistaz

jarraitzeko edo

tabernetan batu

dira ikusteko”

gresista” da, eta zer esanik ez Portland. “Marihuana legeztatzen ere lehenengoak izan ziren hemen”, dio horren harira. Baina beste behin ere inkestek huts egin zuten eta Estatu Batuetako hautakundeetan ahoberoen jardun den hautagaia nagusitu zen.

Trumpekin dena beltz irudikatzen bazuten ere bere inguruan, biharamunean ere argitu zuen egunak. “Nik dena berdin topatu nuen”. Hori bai, lankideren bat joan ei zitzaizen bestondo itzelarekin. “Gertatutakoa ahazteko sekulako parranda egin zuen”, zehaztu du. Lehrrek ez du boto eskubiderik, naziotasun amerikarrik ez duelako. “Laneko bisa batekin nago orain. Iksasle-bisa batekin etorri nintzen hona, eta orain lanekoarekin nago. “Lanik izan ezean hemen ez zaituzte behar, eta are gutxiago orain, Trumpekin. Begira zelakoak bota dituen kanpainen ere paperik gabekoen kontra-eta”, esan du. Handia izan da astea joan, astea etorri Trumpek eman duen ikuskizuna. Bere ageriko misoginia eta arrazakeria, sexu-eskandaluak... Haren diskurtsoa delirio politikotzat hartu du analista bat baino gehiagok ere, eta bere alderdi barruan ere ahots kritikoak ugariak izan dira. “Bitxia da, baina bota dituenak botata ere, jende askok egin du bat berarekin. Gertatzen dena da hemen orain arte nahikoa ondo bizi ziren askok ere maila galdu dutela eta zer esanik ez lehen justuan zebiltzanak. Suminduta dago jendea, eta Clintonek ez duenez sumintasanik agertu bere diskurtsoan, jendeak ez du aldaketa ekartzeko gai ikusi. Batzuek diote Clinton emakume izatea ere puntu negatibotzat hartu dela; jendeak ez zuela AEBetako presidente emakumezkoa nahi”.

Emakumea eta etorkina da Lehr AEBetan, Trumpek sarri azpiratu dituenen multzokoa. “Bai, lesbiana eta beltza izatea bakarrik falta zait gorrotagarria izateko”, dio ironiaz. Baina Europarra izanda, pribilegio zenbait baditu bere inguruko beste etorkin askoren aldean. “Etorkinen artean ere mailak daude”. Eta ez da oraingo kontua. “Obamaren agintaldian ere hala zen”. “Doktorretza egin nuenean baziren gurekin iraniar batzuk eta haiek debekatuta zuten enpresetan praktikak egitea. Goitik zetorren agindua zen”. Lehen ere ez zen dena urte beraz. “Ezkerraz hitz

egiten da, baina hemen ez dago ezkerrik. Guk ezker esaten diogun hori ez behintzat. Hemen demokrotak ere zentro-eskuina dira gutxienez, eta errepublikarrak, eskuin muturrekoak-edo”. Behin eta berriz dio bera ez dela politikaz baloraziorik egiteko egokiena, baina onartu du Estatu Batuetan bizita ezinbestean jarraitu dituela hauteskundeak. “Hemen hor baino gehiago bizi du jendeak politika. Nik esango nuke hor gehiago egiten dela paso, baina hemen hautagaien arteko eztabaidak izan direnetan jendea etxean gelditu da telebistaz jarraitzeko edo tabernetan elkartu dira ikusteko”. Berak ez ei du horrenbesteko arretaz jarraitu, eta kalean ez du estilo amerikarrari dagokion besteko apaindurarik topatu, baina ikusmina nabarmena izan dela dio: “Hauteskunde egunean bertan, Boulderreko antzokian zuzenean jarraitu ahal izan ziren emaitzak, eta kanpoan ilara handia sortu zen. Jendeak zuzenean jarraitu nahi zuen”.

Trumpen garaipenarekin haserre direnen protesten berri izan du telebistaz eta bera bizi zen lekuan istiluak ere asko gogortu direla aipatu du, baina halakoak “leku puntaletako” kontuak direla nabarmendu du. “Amerikarrek Trump aukeratu dute presidente. Agintaldia amaituko duela sinestea ere kosta egiten zait, baina Bushekin zer gertatu zen ikusita...”. Ondo daki kanpotik zein balorazio egin den Trumpi buruz, eta esan du balorazio bera egin dela han ere lekurik aurreratuenetan-eta. “Esango nuke ikasketadun jendeak, maila kultural jakin batekoak eta hiriburuetan edo hiri nagusietan bizi diren asko kontziente direla Trumpen garaipenaz nazioartean egiten den irakurketaz eta bat egiten dutela, gainera. Ez zaie gustatzen, azken batean, baina egia da hemen gehienek ez diotela erreparatzen Estatu Batuetatik kanpo gertatzen denari. Mundua euren mugetan amaitzen zaie amerikarrei, eta egia esan, Estatu Batuak hain dira handiak...”. Eta bere inguru halakoxea da, jasoa: unibertsitate munduko jendea, ikasketadunak, lanean dauden atzerritarren joan-etorri handikoa... Ez daki zenbat denbora gehiagoz egongo den bera han, bueltatzea beti darabilelako buruan, baina profesionalki hazteko aukera gehiago eskaintzen diote Estatu Batuek. Momentuz, han ikusten du bere burua, baina nork daki. “Trumpek ez banau botatzen...”.





## ▶ MIKEL ARTOLA EKONOMILARIA

AFM Makina Erremintaren Erakundearen egiten du lan Mikel Artolak, baina argitu du elkarrikerria honi erakundearen izenean barik bere izenean erantzun diola, ekonomilari elgoibartar baten ikuspuntutik.



# “Goiz da balorazio ekonomiko bat egiteko”

### ♦ Espero zenuen Trumpen garaipena? Jarraitu dituzu hauteskundeak?

Bai. Nahi ez arren ere, derrigortuta gaude jarraitzera, albiste-jarioa etengabea izaten delako, baina bai, jarraitu ditut. Emaitza ez nuen espero hala ere, inkesta guztiek Clinton jotzen zutelako garaile eta besterik gertatu zitekeela ere pentsaezina ematen zuelako.

### ♦ Europatik beltza aurreikusi dute etorkizuna gehienek. Pozten lehenengoak ere eskuin-muturreko alderdiak izan dira. Nolakoa aurreikusten duzu Trumpen agintaldia?

Beltz irudikatu dute etorkizuna, bai, baina gauza guztietan moduan, nik uste dut ez dela hain beltza edo beldurgarria izango. Seguru agintaldia bukatzen duenean, bere ondorengoek gauza batzuk zuzendu beharko dituztela, baina hori politikan betiko kontua da, edozein dela ere presidente. Baina egia da Trumpen ibilbidea ikusita, gauzak okertzeko osagai asko dituela agintaldi honek. Kanpainan sekulakoak esan ditu eta fenomeno hori berria da AEBak bezain herrialde handi eta garatu batean. Hala ere, gauza bat esan nahiko nuke: Europan ahoa betetzen zaigu demokrazia hitzarekin eta ikusi behar da geu ere zer garen.

### ♦ Garbi gelditu da behintzat demokrata-errepublikano dikotomia ez dela han ere ezker-eskuinen sinonimo.

Ez, ez. Hori sinplifikazio hutsa da. Ezker-eskuin kontzeptuak Estatu Batuetan oso ezberdinak dira. Ezkerra demonizaturuta egon da barren han! Errepublikarrak eskuin esaten dugun horretatik gertu daude, bai, baina demokratak oso urruti ezkerretik. Boterera iritsi da Trump, bidean

nahi dituenak eta bi esanda, baina orain, presidentetza irabazita, bere inguru-koek –gertuko aholkulariek eta alderdiki-deek–, gehiago zainduko dute. Bere izaera zein den argi laga du, eta botako ditu aurrerantzean ere handiak ziurrenik, baina beste Trump bat izango dela uste dut. Gainera, Senatuak eta Ordezkarier Ganberak pisu handia daukate erabakietan. Bietan ere errepublikarrak dira nagusi, baina alderdi barruan banaketa handi xamarra dagoenez, garbi dago ez dituela bere nahi guztiak erraz beteko. Trumpen figurari lotuta dagoen txarrena sortzen duen polarizazioa da. Edo urdin zara edo gorri zara; betiko kontua da eta ez da AEBetara mugatzen, baina gizon honen dinamikak kolpean apurtzen du zubilana.

### ♦ Ekonomikoki nola eragingo digu?

Bi adar nagusi daude. Batetik, kanpainan argi esan du protekzionismoaren alde egingo duela. Iragarri du autodefentsako neurriak jarriko dituela martxan, atzerriko konkurrentziatik babesteko [besteak beste, zerga handiak ezartzea atzerriko produktuei eta kupoak ezartzea inportazio batzuei]. Eta, jakina, esandakoen erdiak beteko balitu ere, eragina negatiboa izango litzateke gure enpresentzat. Protekzionismoa beti egon da, baina honek hitz gogorak esan ditu. Egia da protekzionismoa aldarrikatu duen moduan aldarrikatzea exajeratua ere badela eta oso serioa ere ez dela. Globalizazioaren fenomeno neurri handi baten geldiezina da, eta ikuspegi populista batetik, bai, oso erreza da esatea globalizazioak ekarri dituen gauza onak hartu eta txar guztien kontra egingo duela, baina hori bere pisuz jaus-

ten da; iruzurra da, are gehiago AEBek esan dutenean, globalizazioaren motorrik handiena euren ekonomizazio kulturala izan delako. Bestetik, adarra nazioarteko politikan aurreratu dituen urratsak egiten baditu garbi dago ezegonkortasun handia ekarriko duela, eta horrek, jakina, zuzenean eragiten dio ekonomiari:

### ♦ Zertzelada batzuk eman izan ditu kanpainan, besteak beste petrolioaren ustiaketa sustatuko duela eta abar. Guregan halakoek eraginik izango dute? Enpresak kezkatuta daude?

Ez dakit. Ez nuke esango. Oraindik goiz da esan duenetik zer gauzatuko duen aurreikusteko eta ikusi egin beharko da. Goiz da balorazio ekonomikoa egiteko. Errezena sentsazionalista izatea da, eta dena beltz irudikatzea, baina gauzak ez dira horrela. Hauteskundeak irabazi egin ditu, ez du estatu kolpe bat eman, eta gainera, nahiko lukeen dena ere ezingo du egin. Gure enpresek badute, gainera, gaitasuna egoera ezberdinetara egokitzeko. Ez dira alderdi jakin batera lerratuta dauden multinazionalak ere.

### ♦ Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Askotan esaten da bozkatu diotenen bizitzan arrakasta izan duelako bozkatu diotela. Eta bai, arrakasta izan duen enpresa gizona da, baina nola lortu du arrakasta hori? Iruditzen zait arrakastara eramane duen bide hori ez dela egokitzen presidente batek jarraitu beharreko bidera. ‘Badaki enpresak nola gidatu’, esaten du jendeak baina ez da enpresa bat gidatu behar duena, eta benetan, munduko herrialde boteretsuena gidatzen halako pertsona bat jartzea ez zait oso zentzuzkoa iruditzen.

## Hainbat musika ekitaldi antolatu dituzte Santa Zeziliaren omenez Elgoibarren eta Mendaron

Azaroaren 22an Santa Zezilia Eguna denez, hainbat musika ekitaldi antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron datorren asterako. Azaroaren 21ean Musika-lean jaialdia egingo dute Elgoibarren, Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta. Trikiti, akordeoi eta pandero kalejira egingo dute, 18:30etik aurrera. Segidan, kontzertua eta diploma banaketa egingo dituzte musika eskolako auditorioan. Martitzenean, berriz, hau da, Santa Zezilia Egunean bertan, Elgoibar Ikastolako ikasleek girotuko dituzte herriko kaleak. 8:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta instrumentuak joz egingo dute Ikastolara arteko bidea.

Mendaron, berriz, Musikalean izeneko emanaldia eskai-



niko dute Ameikutz musika eskolako ikasleek 19:00etatik aurrera Herriko Enparantzan (euria egiten badu, frontoian). Aurretik trikitalariek kalejira egingo dute.

### 'Ibar Ohiar' erakusketa ibiltaria Elgoibarren eta Mendaron

Gipuzkoako erreka eta arroetako soinuak erregistratzeko egitasmoa da Ibar Oihar. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak eta Cristina Enea Fundazioak jarri dute abian, Audiolab kolektiboaren laguntzarekin, Gipuzkoako ibai eta ibarren soinu, hots eta zaratak erregistratzeko. Deba ibaiarekin hasi dute egitasmoa eta dagoeneko ehunka grabaketa egin dituzte. Orain arte lortutako material eta hausnarketa guztiak erakusketa ibiltari batean jarriko dituzte ikusgai. Elgoibarren azaroaren 14tik abenduaren 1era egongo da ikusgai Merkatu Plazan, eta, Mendaron abenduaren 1etik 31ra bitartean, udaletxeko sarreran.

### 36ko gerraren errekreazioaren DVDa enkarguz eskuratu behar da

36ko gerraren errekreazioko irudiekin Memoriaren ganbaratik dokumentala osatu dute Taupadak eta Elgoibar 1936 taldeek. DVD hori ez dute salgai jarriko, beraz, dokumentala eskuratu nahi duenak eskatu egin beharko du. Bi aukera jarri dituzte: [mansancon@gmail.com](mailto:mansancon@gmail.com) helbidera idaztea edo 687 421 172 (Manu) telefonora deitzea. Dokumentala bera azaroaren 29an eskainiko dute Herriko Antzokian, 19:00etan eta 21:00etan. Sarrerak 5 euro balioko ditu (10 urtetik beherakontzat, bi euro). Lehiatilan bertan jarriko dituzte salgai sarrerak, baina nahi duenak aurrez erosteko aukera izango du Pitxintxun.

## 300 kilo gaztaina banatu zituen Galiza Etxeak Magosto Egunean



Udazkeneko bezala, Magosto Eguna ospatu zuen Elgoibarko Galiziako Kultur Etxeak zapatuan. Aurten, estreinakoz, Maalako parkean egin dute eta gaztainez gain, Galiziatik ekarritako hainbat jaki eta edari eskaini zituzten. Giro hotz eta goibela egin zuen zapatu goizean, baina Maalako parkera gerturatu zirenek barrua berotzeko aukera izan zuten. Galiza etxeko presidente Camilo Oterok jakinarazi duenez, Galiziako Berin herri ingurutik ekarritako 300 kilo gaztaina erre zituzten danbolinetan, eta Ribeiro ardoaren 180 litro inguru banatu zituzten, besteak beste.





## Egoitz Morak beteranoen munduko judo txapelketan hartuko du parte Miamin



Egoitz Mora elgoibartarrak beteranoen mailako munduko judo txapelketan hartuko du parte Miamin (AEB), zapatuan (azaroak 19). Judoka elgoibartarra 100 kiloz azpiko kategorian lehiatuko da, 30-34 urte bitarteko adin tartean (M1 maila). Herralde askotariko judoken aurka borroka egin beharko du, besteak beste, estatubatuarren, brasildarren, errusiarren edo ukrainiarren kontra. Morak azaldu duenez, oraintsu arte goi mailako konpetizioan aritu diren zenbait judoka izango ditu aurkari, tartean Olinpiar Jokoetan parte hartu izan dutenak. Egoitz Mora ez da bakarrik joango Miamira. Usurbilgo Judo Taldeko kidea da elgoibartarra eta beste lau taldekiderekin batera joango da munduko txapelketara, Espainiako selekzioa ordezkatzuz. Horietako hiruk, tartean Morak, beteranoen mailako Espainiako Txapelketa irabazi dute aurtan. Beteranoen Munduko Txapelketako borrokaldiak <http://www.wcvjudo.com/> webgunean eskainiko dituzte zuzenean, streaming bidez.

## Jabier Osorok irabazi du Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketa



Euskadiko hiru txirlo bolo txapelketako laugarren eta azken jardunaldia jokatu zuten azaroaren 12an Elgetako bolatokian. San Migel taldeko Jabier Osoro elgoibartarra sailkapen nagusiko lidergoan ailegatu zen azken jardunaldira, eta Elgetako saioa ere berak irabazi zuen, hamazortzi txirlo jota. Horrenbestez, Jabier Osorok irabazi du Euskadiko 27. Hiru Txirlo txapelketa.

## Etxegarai eta Frutos nagusi Euskal Herriko Lokotx-Biltze txapelketan

Euskal Herriko Lokotx Biltze txapelketa jokatu zuten aurreko zapatuan Ikastolako frontoian. Gizonezkoetan, Berako Fernando Etxegaraik irabazi zuen proba eta txapelketa honetan lortzen duen hamargarren txapela eraman zuen etxera. Emakumezkoetan, Arabako ordezkari Zuriñe Frutos (Artziniega, 1986) gailendu zen. Etxegaraik sei minutu eta zortzi segunduan batu zituen 50 lokotxak, eta Fruto-



sek zazpi minutu eta hamazazpi segunduan amaitu zituen lanak.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Haundi 0 – Ostadar 1 (Oho. Erreg.)  
Elgoibar 6 – Urola 0 (1. erreg.)  
Euskalduna 0 – Elgoibar 4 (Oho. jub.)  
Elgoibar 2 – Iksaberri A 0 (Jub. 1. maila)  
Aloña Mendi 1 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)  
Amiakak Bat 0 – Elgoibar 2 (Inf. 1. maila)  
Elgoibar 0 – Zarautz 0 (Inf. Txiki)  
Amiakak Bat 4 – Elgoibar 4 (Aleb.)  
Bergara 3 – Elgoibar 2 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa  
Lagunak 22 – Euskal Jolas 8 (Kad.)  
Aloña mendi 19 – Lagunak 22 (Jub.)  
Lagunak 22 – Euskal Jolas 10 (Jub.)  
Euskadiko Udaberri Saria  
Elorrio 22 – Lagunak 17 (Kad.)

### ARETO FUTBOLA

Pinseque 4 – Concepto Egile 1 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Dominicos 35 – Alcorta Elg. 26 (Sen. mut.)  
Kukullaga 25 – Lauko Elg. 15 (Sen. nesk.)  
Ormaiztegi 22 – Salento 21 (Sen. mut.)  
Beristain 25 – Eibar 18 (Jub. mut.)  
Zuazo 26 – Tecnifuelle Elg 31 (Jub. nsk.)  
Deca 29 – Corazonistas 29 (Jub. mut.)  
Urkunde Elg. 31 – Eibar 18 (Jub. mut.)  
Zuazo 23 – Astigarraga Elg. 24 (Kad. nesk.)  
Bankoa Elg. 34 – Corazonistas 10 (Kad. mut.)  
Cometel Elg. 21 – Ereintza 20 (Kad. nesk.)  
Dario Elg. 29 – Aiala B 18 (Kad. nesk.)  
Amenabar 7 – Murgil Elg. 31 (Inf. mut.)  
Txarriduna Elg. 36 – Bergara 20 (Inf. mut.)  
Aloña 10 – Pneumax Elg. 26 (Inf. nesk.)  
Bacalaos Alkorta Elg. 23 – Eibar B 15 (Inf. nesk.)  
Leizaran 15 – Modeltek Elg. 12 (Inf. nesk.)

## Agenda

### ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 20  
12:30 Concepto Egile – Tafatrans Tafalla (Naz. I B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19  
12:00 Elgoibar – Lazkao (Oho. kad)  
16:00 Elgoibar – Billabona (Oho. jub.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barixakua, 18  
21:00 Alcorta Elg. – Anaitasuna (Sen. mut.)  
Zapatua, 19  
10:00 Modeltek Elg. – Hernani (Inf. nesk.)  
11:30 Pneumax Elg. – Ibai Ondo (Inf. nesk.)  
17:45 Urkunde Elg. – Basauri (Kad. mut.)  
19:30 Beristain Elg. – Basauri (Jub. mut.)  
Domeka, 20  
10:00 Murgil Elg. – Amenabar Zarautz (Inf. mut.)  
11:30 Salento Elg. – Leizaran (Sen. mut.)

### ESKUBALOIA (IMHn)

Zapatua, 19  
16:00 Lauko Elg. – Pulpo (Sen. nesk.)

**LANA.....**  
**Eskaerak**Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 634 896 845

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago, astegunetan. Gauzez ere bai. ☎ 629 817 299

Garbiketa lanak egiteko, adinekoak zaintzeko edota sukalde laguntzaile gisa aritzeko prest nago.  
☎ 632 879 419Geriatría laguntzailea naiz. Adinekoak zainduko nituzke. Prestutasun osoa.  
☎ 646 931 162

Umeak edo pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. ☎ 616 457 254

Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 680 808 125

Adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile bezala lan egiteko prest nago.  
☎ 677 259 560Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan.  
☎ 617 571 210Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest nago. 7:00etatik 11:00etara.  
☎ 631 182 450

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo

garbiketarako egiteko prest nago. 13:00etatik aurrera.  
☎ 620 757 528Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai.  
☎ 602 193 095 / 612 216 458Garbiketa lanak egiten ditut: bulegoak, portalak, etxeak... Euskalduna.  
☎ 626 490 986Adinekoak zaintzeko prest nago eta garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka, asteburuetan, edo interna moduan. Erreferentzia onak.  
☎ 685 288 238Portalak garbitzeko prest nago. Orduka.  
☎ 602 490 595Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 649 044 223Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 612 242 293Etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka.  
☎ 943 744 033 / 637 102 725Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 647 100 572Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 185 896

Etxeak edo portalak garbitzeko ni-

tuzke. Elgoibartarra eta euskalduna naiz. ☎ 649 782 967

Orduka lan egiteko prest nago.  
☎ 602 047 812Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 638 338 816Matematikako klase partikularrak ematen dizkiei DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua.  
☎ 667 625 233Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo asteburuetan. Esperientziarekin eta geriatriako ikastaroak eginda.  
☎ 602 393 678Garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.  
☎ 602 473 663**Eskaintzak**

Malape tabernarako zerbitzaria behar da. CV tabernan bertan utzi.

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa euskalduna eta 20:35 urte bitartekoa izatea. Bidali cv: [dendacv@hotmail.com](mailto:dendacv@hotmail.com)**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**Logela bakarreko edo biko etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da.  
☎ 602 377 921Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran.  
☎ 631 252 750Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunetan. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia.  
☎ 689 781 069Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 688 723 121**GARAJEAK.....**Garaje itxia alokatzen dut Urazandin.  
☎ 943 531 131Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin.  
☎ 609 951 243**BESTELAKOAK.....**Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu ditut, funda eta guzti. Udaltzaingoan laga edo deitu, mesedez.  
☎ 661 692 246Hiru asteko katakumeak oparitzen dira.  
☎ 699 789 934Karakate mikologia elkarte nire bazkide-tza partea traspasatuko nuke.  
☎ 688 605 253**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**Gure komunitateko garaje batean –marradun garajeak–, jabe batek pibote bi jarri ditu aldamenen aparkatzen duen auto-jabeak bere autoari arrastorik egin ez diezaion aparkatzean. Gainerako jabeen baimena behar du horretarako?**

Berez, aparkaleku pribatu hori ixteko kateak edo hesiak jartzeak ez dio eraikinaren segurtasunari edo egiturari eragiten, obra txikia delako.

Ez dago arazorik, baldin eta pibote horiek bere espazio barruan jartzen baldin baditu, elementu komunak direneta sartu gabe edo piboteak aparkalekuak bereizteko marren gainean jartzen baldin baditu, normalena izaten den moduan.

Piboteak nola jartzen diren da kontua. Marretatik gertu jartzen baldin badira edo marren gainean, gerta daiteke gainerako erabiltzaileei kalteak eragitea maniobretan ari direla. Hori gertatuz gero, kaltetutako auto-jabe horiek kalte-ordainak eskatu ahal izango lizkiokete eta baita piboteak kentzeko eskatu ere.


**AHOLKUA: Beraz, piboteak non eta nola jarri nahi direnaren arabera, jabe horrek baimena eskatu beharko lioke jabeekideen batzarrari eta hark onetsi.****ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ibon**, astelehenean 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Paule!** Muxu potolo bat, etxeko sorgintxo alaiari. Bihar 4 urtetxo! Poz-pozik ospa dezazula urtebetetzea.



Zorionak, **Danel**, azaroaren 21ean 6 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Elene eta Peru**. Zuek zoriontzeko gaude gu eta Elurrek eta etxeko beste danok patxo beteko zaituztegu.



Zorionak, **hirukote!** Muxu sorta handi bat etxeko danon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Gida komertziala** 

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu. Zure enpresaren datuak gidan **DOAN** agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskerfuko genizuke gurekin harremanetan jarzteaz:

[gida@elgoibarkoizarra.eus](mailto:gida@elgoibarkoizarra.eus)  
644 765 640 / 943 743 704

Interneten ere **bai!**

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**PANTAILA DIGITALENTZAKO LENTILLA BEREZIAK**

\*Informazio gehiago optikan

## 18 BARIXAKUA

**17:30** Txaranga Txikia, Musika Eskolatik hasita. Antolatzailea: Musika Eskola.

**19:30** Kalejira: Bizi-poza txarangarekin, Azpilgoetan hasita.

**20:00** Kontzertua: Pispillu abesbatza. Parrokiaren 300. urteurrenaren barruan. San Bartolome parrokiaren.

## 19 ZAPATUA

**10:00** Talo tailerra familian, HH4tik LH3ra arteko umeentzako. Atxutxiamaiakaren Kiribilduz egitasmoak antolatuta. Zubi Ondo elkartearen.

**11:00** Bisita gidatua: Mufomi museo paleontogikora. Haizeak antolatuta, doan.

**19:30** Trikipotea Mendaron. Gazte-txean hasita.

**23:30** Kontzertuak Mendaroko Gazte-txean. Parrazta punk eta Gurera taldeen.

## 20 DOMEKA

**16:30** Famili-antzerkia: 'Marikixkur eta hiru hartzak'. Glu-glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 21 ASTELEHENA

**18:30** Musikalean: Trikitixa, akordeoi eta pandero kalejira. Antolatzailea: Musika Eskola.

**19:00** Santa Zezilia eguneko kontzertua eta diploma banaketa. Musika Eskolak antolatuta, ikastetxeko auditorioan.

## 22 MARTITZENA

**8:30** Santa Zezilia eguna: Ikastolako ikasleen kalejira. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazatik Ikastolaraino.

## 24 EGUENA

**17:00** Jostailu erakusketa. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

**18:30** Erakusketa: 'Noticias de Gipuzkoa' egunkariaren 10. urteurrena. Hilaren 30era arte, Kultur Etxean.

**19:30** Morkaikoren udazkeneko emanaldiak: Piriniotako harribitxiaren bila: Haritz Arrieta, Ander Izagirre eta Aitor Montes. Musika Eskolan.

## Zinea (Herriko antzokian)

'Inferno'	18 barixakua 21:30 19 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS) 20 domeka 19:00 21 astelehena 21:30	'Cuando tienes 17 años' (Ongarri)	24 eguna 21:30
-----------	---	---	----------------



Flexiahorro  
% 0,55

### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

#### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURAL EN ARABERA

#### LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

#### IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko dizugu: Tupperware marka ospeatsuko 10 ONTZI, janaria gordetzeko eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.  
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

**CA** **bankoa**  
CRÉDIT AGRICOLE

## INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

### BELDUR BARIK ASTEA, GAZTELEKUAN

#### Azaroak 18

**18:00** Tailerra: Zer da maitasun erromantikoa? Hizlaria: Isabel de Blas (Sortzen). Antolatzailea: Berdintasun eta Gazteria Sailak.

#### Azaroak 23-27

Erakusketa: Nerabe eta gazteen harreman afektiboetan suerta daitezkeen bortizkeria egoerak.

#### Azaroak 24

Filma: 'Tres metros sobre el cielo'.

#### Azaroak 25

Jarduera praktikoak: Iritzi kritikoak lantzeko.

### LIBURUTEGIAN

#### Azaroak 24

**17:00** Ipuin kontalaria: Maider Galarza. Kolorretako ipuinak, ipuin ez sexistak. Bi saio izango dira: HH5eko ikasleentzat lehenengo, eta LH1 eta LH2koentzako ondoren.

### KULTUR ETXEAN

#### Azaroak 23

**18:30** Emakumeen kontrako indarkeria. Hizlaria: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Hitzaldi gelan.

#### Azaroak 28

**18:30** Hausnarketarako tailerra: Jabekuntzan Aurrerapausoak emanez. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko sotoan.

### KALEGOEN PLAZAN

#### Azaroak 25

**19:30** Elkarretaratzea. Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta.

### KIROLDEGIAN

#### Azaroak 26

**10:00** Tailerra: Autodefentsa. Olaizaga kirol taldeak eta Kirol Patronatuak antolatuta.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

**09:00 - 22:00**

18 Barixakua FERNANDEZ

19 Zapatua YUDEGO

20 Domeka YUDEGO

21 Astelehena ORUESAGASTI

22 Martitza BARRENETXEA

23 Eguaztena IBAÑEZ

24 Eguena GARITAONANDIA

25 Barixakua ETXEBERRIA

**22:00 - 00:00**

Asteleheneetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

**00:00 - 09:00**

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Urrian hildakoak

- . **Silvano Macho Tejedor** 77 urte, urriak 3
- . **Florencio Gorriti Agirre** 82 urte, urriak 7
- . **Lurdes Iriondo Gurrutxaga** 77 urte, urriak 8
- . **Nieves Unanue Arriola** 88 urte, urriak 10
- . **Jose Martin Barrenetxea Aranzamendi** 51 urte, urriak 11
- . **Mariasun Gandiaga Zabala** 58 urte, urriak 12
- . **Paula Astigarraga Arozena** 96 urte, urriak 13
- . **Pakita Opakua Elorza** 92 urte, urriak 15
- . **Mari Karmen Agirre Egaña** 101 urte, urriak 19
- . **Virginia Bollain Escudero** 92 urte, urriak 21
- . **Carmen Martin Caballero** 96 urte, urriak 24
- . **Concepcion Aguilar Fajardo** 78 urte, urriak 24
- . **Jose Gurrutxaga Ondarza** 95 urte, urriak 25
- . **Jose Antonio Arrieta Etxaniz** 93 urte, urriak 27
- . **Victorio Agote Berasaluze** 78 urte, urriak 28



# ETXEBERRIA tanatorioa

## Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.**  
**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.**  
**ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



*Julen Ansola*



**Julen Ansola**



**Eider Iriondo**

Hotza kalean eta bustita jarlekuak  
Bero nire hatzak  
Nire gitarra besarkatuz  
hemen naiz, ausart, lotsarik gabe  
Neu bakarrik, baino ez bakardadean galdurik

Nirea da kalea  
ozen kantatuz  
munduari garrasi egiten diot  
entzun nazazun, ikus nazazun  
segundu bat bada ere  
nire aurrean gelditu zaitezten

Mundua presaka doa  
eta zu, presaka zoaz  
ez duzu inorekin enkontrurik  
itsu eta gor  
zurera  
erlojuaren menpe  
tik-tak, tik-tak  
zure bidetik zoaz  
ta badoa denbora

lhes egiten dizu denborak  
eta hautsitako denbora bat  
inoiz berregin daitekeen galdetzen diozu zure buruari.

Denbora eta bere zuloak,  
zuloetatik eta korapiloetatik irteteko denbora behar.  
Denbora eta bere leihoak  
hasperen berriak hartzeko leihoak behar  
Leihora atera behar kez inguratutako burbuilatik irteteko.

Gauero, ispilu aurrean zinen biluzik  
zure begien argitasuna  
besterik ez zen ageri  
ilargiaren argia bezalaxe  
inoiz ez dadila itzali  
elkarrekin, su hori bero mantendu  
argi hori nire sentitu  
eta argi horietatik irtendako malkoek  
erreka laburra izango dute  
ni egongo naizelako xukatzeo  
ni zuretzat  
zu niretzat  
zure belarrira abestuz  
amets egingo dugulako elkarrekin,  
zatoz nigana maitia.



**CORDON VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura  
Zaluzak ezartzea  
Lakadura eguzi, aluminio, PVC.  
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modurua  
Tel. 943 748 570




**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
www.barren.eus webgunean**

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

BARREN

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

Jon Aranoa  
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua eskatzen.  
Dutzu ordua hartzeko.

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - 1      Tel: 943 741 189



★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
★ MULTIKOPISTAK  
★ FOTOKOPIADORAK  
★ ERLOJU INDUSTRIALAK  
★ MARRAZKETA  
MATERIALA  
★ INFORMATIKA  
★ FAX

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**Lagunduko al diguzu  
ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?**



Elgoibarko Izarraren aldeko  
**TONBOLA**  
Abenduak 24, 11:00etatik  
14:00etara, Kalegoen plazan

1.500 erregalu  
baino gehiago...

Aurreko hiru urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?

Animatzen bazara, esan ahal duzun azkarren tonbolarako erregalua emateko prest zaudela.  
**Abenduaren 2a izango da.**

Harremanetarako:  
**barren@elgoibarkoizarra.eus**  
**943 744 112**



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## AROSZTEGIAK



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Olaso industriagunea, 17 beheha  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriaimara@hotmail.com](mailto:carpinteriaimara@hotmail.com)



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



Aroztegia · Carpinteria



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



## ELEKTRIZITATEA



Kiliman hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 358

[iparelek@gmail.com](mailto:iparelek@gmail.com)  
[iparelek@iparelek.com](mailto:iparelek@iparelek.com)



San Frantzisko, 51  
Elgoibar  
Tel.: 943 741 238



Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranzaj@gmail.com](mailto:karranzaj@gmail.com)  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999




electricidad  
**PEROSANZ**

[www.electricidadperosanz.com](http://www.electricidadperosanz.com)  
[eibar@electricidadperosanz.com](mailto:eibar@electricidadperosanz.com)

Ibargain 17, AC beheha  
Tel.: 943 202 208  
Faxa: 943 206 045  
20950 EIBAR

Heriko Enparantza 5  
Tel.: 943 033 035  
20850 MENDARA



ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA



Urasandi, 22 beheha - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 beheha  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)



Heriko Enparantza, 10 beheha  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
[pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com)  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com)



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523

[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)



San Roke 10-A, beheha B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

## TELLABIDE ITURGINTZA



Azpigoeta 7 beheha - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
[iturgintzatellabide@hotmail.com](mailto:iturgintzatellabide@hotmail.com)



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzo, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[senda@pagoagasa.com](mailto:senda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[tsiler@pagoagasa.com](mailto:tsiler@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosof@gmail.com](mailto:lodosof@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura